

ARTISTEENZAKO SOINUZTAZE TAILERRA

Lights! Camera! Sound???

Irakaslea: Trakamatraka (Jon Urrutia y Xabier Urrutikoetxea)

Urriak 14 eta 15 | 10:00etatik 14:00etara · 15:30etik 18:30era

14 orduko ikastaroa, Lekuonan, Errenterian. Hizkuntza: Elebiduna (Euskara eta Gaztelania).

Arte eszenikoetan lan egiten dutenei edo trebatzen direnei zuzenduta dago, eta beren proiektuetan autonomia handiagoa izan nahi dutenei, soinuaren esparruan ezagutzak eta hizkuntza bereganatuz.

Sobre el curso.



Soinu mailako ideiak dituzu, baina ez dakizu nola gauzatu? Tailer honekin soinua ulertzeko, behar bezala soinuiztatzeko, tresnak behar bezala erabiltzeko eta zure proiektuetan abian jartzeko behar diren ezagutzak lortuko dituzu.

"Dummiesentzako soinu-teknika" soinuaren ezagutza eskuratzeko eta proiektuak ahalik eta profesionaltasun handienarekin gauzatzeko egokitutako tailerra da.

Soinuak nola funtzionatzen duen ikasiko dugu eta praktikan jarriko dugu:

- Soinua eta soinu-teknikari baten lana ulertzea.
- Soinu-katea eta bertan parte hartzen duten aparatuak/tresnak ezagutzea.
- Zuzeneko zein ediziorako soinu-programak erabiltzen ikastea.
- Ikuskizunetarako soinu-muntaia elkarlanean sortzea.

Trakamatraka



Musika- eta antzerki-konpainia. Familia osoarentzako musika-ikuskizunak proposatzen ditu, berrerabilitako edo eguneroko elementuak erabiliz. Ikuskizun bat sortzerakoan edo zuzenean eramaterakoan artistok eta sortzaileok soinuari dagokionez dugun problematika ezin hobeto ulertzen duen konpainia.

Jon Urrutia

Gitarra eta biolina ikasi zituen "Juan Crisostomo de Arriaga Kontserbatorioan" (Bilbo). Familia ezberdinetako instrumentu gehiago ikertzen eta aztertzen jarraitu du, baita harmonia, konposizio-teknika eta konponketak ere. Hainbat arlotan lan egin du, antzerkian zein musikan.

Xabier Urrutikoetxea

Musika-prestakuntza Bilboko musika-eskolan. Bere estudiotik (Kantauri Estudios) hainbat diskoren teknikari ekoizle gisa lan egin du. Antzerkian, hainbat antzerki-konpainiarentzat lan egin du ikus-entzunezkoen zatia sortzeko.